



Laixan

Antxiñako fotografixia



PLAZAKO TXOKO BAT : ZINE ALOÑA ETA MERKAUA

*J*kusten dan ingurua herriko plazakua da. Bertan gaur egunian Pago Uso elkartia, Gaztelekua eta herriko merkau dauz .Fotografixia 1.925 ingurukua da. Garai hareittan eskumako etxe zurixan ostian neskatilen eskolia euen. Ikusten danez bere aurrian dauen etxe zurixak bi pisu zittuen eta gaur egunian hiru dako.

Elortza generalan iturrixa ikusten dan lekuan gaur egunian kioskua dau eta iturrixa bera be atzeratuau dau. Ezkerretan dauen edifizia lehenago zine Aloña eta herriko merkau zian. 1.925ean zinia akabo zan eta arkitektoa Damian Lizaur izan zan. Merkaue be 1.928rarte ez zan akabo.

Zine hau ez zan izan lehenengua, ba arkupetan zine anbulantia emuten zan. Hortarako Gernikako arbolan inguruan barrakoi bat jarten zan zinia botateko.

Zinia eitten aginddu ebeñiak Azurmendi eta Gonzalez promotoriak izan zian eta Gerra ostian bezte sozio batzuk hartu ebein, hau da Jabier Zelaia, Edmundo Gereta eta Ignacio Gereka.

Akaziak barrenerañño ikusten dia eta ezkerretan akaboten dian lekutik Gernikako arbolarañño pelotaleku mouan ebaltan zan. Txoko horretan barrakak be jarten zian.

Eskerrik asko Reyes Korkostegi eta Xabier Zelaiari euren argibidiatik.

OHARRA: Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituzu, zatozi!



Cartonajes Arregi, S.A.

- Kartoi ondulatuen fabrikazioa
 - Enbase eta enbalajeen fabrikazioa
- Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxe: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

HIRYKAR

LIBURUDENDA
OPARIAK

San Lorentzo, 11
OÑATI
Tfnoa. 78 08 21